

ABADIÑOKO UDALA

IRAGARKIA, arau subsidiarioen hasierako onarpenari buruzkoa.

19262

Xedapen Orokorrak**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA****Zk-5843**

222/2001 DEKRETUA, urriaren 16ko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duena.

Uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administracioko sailak sortu, ezabarta eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finikatu zituen. Dekretu horren bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren administrazioaren egituraren barruan egongo zela ezarri zen, eta, zehazki, 8. artikuluan, sail horren egitekoak eta jardun-arloak finikatu ziren.

LOGSEk eragindako aldaketak sartuta eta hezkuntza-sistemaren oinarrizko zenbait egitura-alderdi doitzentz amaituta, egoki da eta zuzen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa egokitzea, XXI. mendeko hezkuntza-erronkei aurre egingo bazaie.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lider eta dinamizatziale izan behar du berrikuntza, lanbide-heziketa eta etengabeko ikaskuntzako programetako jardun-ildoetan. Eta jardun-ildo horiek, hain zuzen ere, bat egiten dute sailak etorkizunerako planteatutako jardun-arloekin.

Horregatik guztiagatik, sailak, jardun-arlo horiei heldu ahal izateko, lau sailburuordetza izango ditu: baliabide material, giza baliabide eta ekonomia-baliabideen kudeaketa; hezkuntza-sistemaren berrikuntza eta planifikazioa; lanbide-heziketaren eta etengabeko ikaskuntzaren planifikazioa eta garapena; eta zientzia nahiunibertsitate-politiken antolamendu eta garapena.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza sortzeak berretsi egiten du lanbide-heziketak zein nolako eginkizun estrategikoa duen pertsonen prestakuntzan eta kalitatean, enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan, lanbide-kualifikazioak ekoizpen-inguruaren beharretara egokitzeko ahaleginean, eta enplegu-politiketan —pertsonak lanbideratzeko tresna gisa—. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, horretarako, bere gain hartzen ditu bizitzan zehar kualifikazioak eskuratu edo handitzea ekar dezaketen ikaskuntza-jarduera guziak, eta jarduera horiek, hain zuzen ere, ondo kokatzen dira uztailaren 16ko 7/2001 De-

AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO

ANUNCIO sobre la aprobación inicial de las Normas Subsidiarias.

19262

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN****Nº-5843**

DECRETO 222/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

El Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, establece, dentro de la estructura de la Administración, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, determinando en el artículo 8 las funciones y áreas de actuación del mismo.

Una vez incorporados los cambios debidos a la implantación de la LOGSE y finalizado un periodo de reajuste de aspectos estructurales básicos del sistema educativo se impone la adecuación de la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación para poder hacer frente a los retos de la educación del siglo XXI.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación debe liderar y dinamizar las líneas de actuación definidas en los Programas de Innovación, Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, que se corresponden con las principales áreas de actuación del Departamento a futuro.

Por todo ello, se va a configurar en cuatro Viceconsejerías para poder atender dichas áreas, como son: la gestión de recursos materiales, humanos y económicos; la innovación y planificación del sistema educativo; la planificación y el desarrollo de la formación profesional y aprendizaje permanente; y la ordenación y desarrollo de la política científica y universitaria.

La creación de una nueva Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, confirma la función estratégica que desempeña la Formación Profesional en la preparación y calidad de las personas, en la mejora de la competitividad de las empresas, en la adaptación de las cualificaciones profesionales a las necesidades del entorno productivo, y en las políticas de empleo como instrumento de inserción profesional. Para ello el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, asume dentro de sus áreas de responsabilidad, funciones y áreas de actuación, recogidas en el precitado Decreto 7/2001 de 16 de julio publicado en

kretuan —EHAA, 137. zk., 2001eko uztailaren 17an argitaratutako Dekretuan— jasotako ardura-arloen, eginkizunen eta jardun-arloen baitan.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onartutakoan eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko urriaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA ANTOLAKETA OROKORRA

1. artikulua.— Egitekoak eta eskumenak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagozkio uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena— 8. artikuluan zehaztutako egitekoak eta jardun-arloak, eta sailburuaren zuzendaritzapean burutuko dira.

2. artikulua.— Egitura orokorra.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila organo hauetaz baliatuko da bere eskumenak gauzatzeko:

A) Organo nagusiak:

- 1.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.
- 1.1.— Kabinetearren Zuzendaritza.
- 2.— Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.
- 2.1.— Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza.
- 2.2.— Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza.
- 2.3.— Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritza
- 2.4.— Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza
- 3.— Hezkuntza Sailburuordetza
- 3.1.— Hezkuntza Berriatzeko Zuzendaritza
- 3.2.— Ikastetxeen Zuzendaritza
- 4.— Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza
- 4.1.— Lanbide Heziketako Zuzendaritza
- 4.2.— Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza
- 5.— Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza
- 5.1.— Unibertsitate Zuzendaritza
- 5.2.— Zientzia Politikarako Zuzendaritza

el BOPV, n.º 137 de 17 de julio de 2001, todas aquellas actividades de aprendizaje que conlleven adquisición o incremento de las cualificaciones a lo largo de la vida.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 16 de octubre de 2001,

DISPONGO:

CAPÍTULO I ORGANIZACIÓN GENERAL

Artículo 1.— Funciones y Competencias.

Al Departamento de Educación, Universidades e Investigación le corresponden las funciones y áreas de actuación que se determinan en el artículo 8 del Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerciendo las mismas bajo la dirección de la Consejera.

Artículo 2.— Estructura general.

Para el ejercicio de sus competencias, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se estructura en los siguientes órganos:

A) Órganos Centrales:

- 1.— Consejera de Educación, Universidades e Investigación.
 - 1.1.— Dirección del Gabinete.
 - 2.— Viceconsejería de Administración y Servicios
 - 2.1.— Dirección de Administración y Gestión Económica.
 - 2.2.— Dirección de Gestión de Personal
 - 2.3.— Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización.
 - 2.4.— Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.
 - 3.— Viceconsejería de Educación.
 - 3.1.— Dirección de Innovación Educativa.
 - 3.2.— Dirección de Centros Escolares.
 - 4.— Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.
 - 4.1.— Dirección de Formación Profesional.
 - 4.2.— Dirección de Aprendizaje Permanente.
 - 5.— Viceconsejería de Universidades e Investigación.
 - 5.1.— Dirección de Universidades.
 - 5.2.— Dirección de Política Científica.

B) Lurralte organoak:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lurralte historiko bakoitzean dituen lurralte-ordezkaritzak dira.

C) Kide anitzeko organoak:

1.- Euskadiko Eskola Kontseilua, urriaren 28ko 13/1988 Legearen bitartez sortua (azaroaren 23ko EHAA).

2.- Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordea, otsailaren 9ko 22/1988 Dekretuaren bitartez sortua (otsailaren 18ko EHAA).

3.- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, otsailaren 22ko 100/1994 Dekretuaren bidez sortua (martxoaren 16ko EHAA) eta irailaren 8ko 222/1998 Dekretuaren bidez aldatua (irailaren 22ko EHAA).

4.- Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, ekainaren 29ko 19/1998 Legearen bidez sortua (uztailaren 16ko EHAA), eta azaroaren 17ko 315/1998 Dekretuak arautua (abenduaren 9ko EHAA).

5.- Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua, ekainaren 29ko 19/1998 Legearen bidez sortua (uztailaren 16ko EHAA), eta azaroaren 17ko 314/1998 Dekretuak arautua (abenduaren 7ko EHAA).

6.- Otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuaren indarrez (otsailaren 13ko EHAA) sortutako unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI)

3. artikulua.- Zuzendaritza Kontseilua.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak zuzendurik, Zuzendaritza Kontseilu bat izango da titularrari ondoko lan hauetan laguntzeko: sailaren politika ikuskatzen eta jarraitzen, egintzen plangintza orokorra egiten eta ezartzen zaizkion gainontzeko eginkizunetan.

Sailburuak, sailburuordeek eta Kabinetaren zuzenariak osatuko dute Zuzendaritza Kontseilua. Sailbura izango da Zuzendaritza Kontseiluko zuzendari gozena eta Kabineteko zuzendaria idazkaria.

Horietaz gain, sailburuak izendatutako beste pertsona batzuek ere parte hartu ahal izango dute Kontseiluan.

II. KAPITULUA**I. ATALA
SAILEKO SAILBURUA****4. artikulua.- Sailburua.**

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26 eta 28. artikuluek eta Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak Sailari esleitzten dizkion egiteko eta jardun-arloen alorrean indarrean dagoen legerian ematen zaizkion eskumenak izango ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak; beti ere,

B) Órganos Periféricos:

Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en cada uno de los Territorios Históricos.

C) Órganos Colegiados:

1.- Consejo Escolar de Euskadi, creado por la Ley 13/1988, de 28 de octubre (BOPV de 23 de noviembre).

2.- Consejo Asesor de Enseñanzas Musicales, creado por Decreto 22/1988, de 9 de febrero (BOPV de 18 de febrero).

3.- Consejo Vasco de la Formación Profesional, creado por Decreto 100/1994, de 22 de febrero (BOPV de 16 de marzo) y modificado por el Decreto 222/1998, de 8 de septiembre (BOPV de 22 de septiembre)

4.- Consejo Vasco de Universidades, creado por Ley 19/1998, de 29 de junio (BOPV de 16 de julio) y regulado por Decreto 315/1998, de 17 de noviembre (BOPV de 9 de diciembre).

5.- Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria, creado por Ley 19/1998, de 29 de junio (BOPV de 16 de julio) y regulado por Decreto 314/1998, de 17 de noviembre (BOPV de 7 de diciembre).

6.- Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa no universitaria (IVEI), creado por Decreto 14/2001, de 6 de febrero (BOPV de 13 de febrero).

Artículo 3.- Consejo de Dirección.

Presidido por la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, existirá un Consejo de Dirección que asistirá a su titular en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados.

Bajo la superior dirección de la Consejera, el Consejo de Dirección estará integrado por los Viceconsejeros/as y por la Directora del Gabinete, quien ejercerá la secretaría del Consejo.

Asimismo podrán participar en el Consejo de Dirección otras personas que determine la Consejera.

CAPÍTULO II**SECCIÓN I
DE LA CONSEJERA DEL DEPARTAMENTO.****Artículo 4.- De la Consejera.**

Corresponde a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno y cuantas otras le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Depar-

eskumen horiek beste inongo organori atxikita ez bidaude.

Saileko organo gorena denez gero, berak zuzendu, koordinatu eta kontrolatuko ditu saileko organo eta egintza guztiak.

Bera arduratuko da, deialdi publikoa egin ondoren, izendapen askeko lanpostuen horniketaz, baita behin-behineko langileak izendatzearaz ere.

II. ATALA KABINETEAREN ZUZENDARITZA

5. artikulua.- Kabinetaren Zuzendaritza.

Sailburuak Kabinetaren Zuzendaritzaren laguntza gertua izango du. Kabinete hori, Saileko zuzendarien betebehar orokorrez gain, jarraian zehazten diren egitekoez eta jardun-arloez arduratuko da:

- a) Sailburuaren lan-egitasmoaren jarraipena egingo du.
- b) Sailaren kanpo-harremanen alorrean egin beharreko egintza zehatzak burutuko ditu.
- c) Sailaren harremanak eta koordinazioa egingo ditu Arartekoaren erakundearekin eta Herriaren Defentsariaren erakundearekin.
- d) Saileko arlo eta zerbitzu bakoitzak herritarrok informatzeko garatutako egitekoak koordinatuko ditu, bai eta Saileko jardun-arloei buruzko kexak eta iradokizunak jaso ere.
- e) Bera arduratuko da, halaber, gizarteko komunikabideen eta Sailaren arteko harremanez, irudi lanez, Sailaren kanpo harremanez eta Sailaren iragarki ofizialen, prentsa-oharren eta publizitate-ekimenen kudeaketaz.
- f) Jaurlaritzaren Kontseiluari eta Ekonomia Gaietako Ordezko Batzordeari aurkeztu behar zaizkion gaien jarraipena egingo du.
- g) Dokumentazio-zerbitzuen eta dokumentu-baseen kudeaketa, eta Saileko argitalpenen jarraipena eta koordinazioa egingo ditu.
- h) Eusko Jaurlaritzak Europako Batasuneko araudi eta politikak egiten eta ezartzen parte har dezan, koordinazio neurriak ezarri beharko ditu, indarrean dauden akordio eta arauetik jarraiki.

III. KAPITULUA SAILBURUORDETZAK ETA SAILEKO ZUZENDARITZAK

6. artikulua.- Sailburuordetzak.

tamento de conformidad con el Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, y no estén adscritas a ningún otro órgano.

Como órgano superior del Departamento ejercerá la dirección, coordinación y control de todos los órganos y actividades del mismo.

Corresponde asimismo a la Consejera del Departamento la provisión de los puestos de libre designación, previa convocatoria pública de los mismos, así como la designación del Personal Eventual.

SECCIÓN II DE LA DIRECCIÓN DEL GABINETE

Artículo 5.- De la Dirección del Gabinete.

La Consejera cuenta con la asistencia inmediata de una Dirección del Gabinete que, además de las funciones genéricas correspondientes a los/as Directores/as del Departamento, tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) El seguimiento del programa de trabajo de la Consejera.
- b) Las acciones precisas en el ámbito de las relaciones externas del Departamento.
- c) Las relaciones y coordinación del Departamento con la Institución del Ararteko y con la del Defensor del Pueblo
- d) La coordinación de las funciones de información general al ciudadano desarrollados por cada una de las áreas y servicios del Departamento, así como la recepción de quejas y sugerencias en relación con las áreas de actuación del Departamento.
- e) Las relaciones del Departamento con los medios de comunicación social, las labores de imagen y relaciones externas del Departamento, así como la gestión de los anuncios oficiales, remitidos y campañas publicitarias del Departamento.
- f) El seguimiento de los asuntos que vayan a ser sometidos al Consejo de Gobierno y a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.
- g) La gestión de los servicios de documentación y bases documentales, así como el seguimiento y coordinación de las publicaciones del Departamento.
- h) La ejecución de las medidas de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la Unión Europea, de conformidad a los acuerdos y normas en vigor.

CAPÍTULO III DE LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES DEL DEPARTAMENTO

Artículo 6.- De las Viceconsejerías.

Sailburuordetza bakoitzaren arduraduna sailburuorde bat izango da, hierarkian sailburuaren menpeko zuzena izango dena. Hauek izango dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuordeen egitekoak:

a) Sailburuordetzaren eta bere menpeko Zuzendaritza eta administrazio organo eta unitateen egintzak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatuko dituzte.

b) Jardun politikak elaboratu eta sailburuari aurkeztuko dizkiote.

c) Esleitu zaizkien egitekoen eremuan, sailburuari laguntza emango diote.

d) Sailburuordetzari dagozkion egintzak programatu eta burutuko dituzte.

e) Sailburuordetzako administrazio-unitateen funtzionamenduko instrukzioak, zirkularrak eta xedapenak emango dituzte.

f) Xedapen-proiektuen proposamenak egingo dituzte, ezarritako jardun-politikaren arabera.

g) Helburuen eta jardun-planen kudeaketa ikuskatuko dute.

h) Beren ardurapeko arloetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta gainontzeko sailen eta arlo material horren inguruau sortutako sailarteko koordinazio-organoen arteko harremanetako organoa izango dira.

i) Indarrean dagoen legerian aurreikusten diren kauetan, errekursoak ebatziko dituzte.

j) Esandakoez gain, indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkien gainontzeko egitekoak, Jaurlaritzako sailburuordeei, oro har, dagozkien egiteko orokorrak eta sailburuak haien eskuetan uzten dituen zeregin guztiak ere beteko dituzte.

7. artikulua.- Zuzendaritzak.

Saileko zuzendaritza bakoitzaren arduraduna zuzendari bat izango da, hierarkian dagokion sailburuordearen menpeko zuzena izango dena, Kabinetearren Zuzendaritzarako aurreikusitakoetan salbu. Hauek izango dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zuzendarien egitekoak:

a) Zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatuko dituzte.

b) Zuzendaritzaren egintzak bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatuko dituzte, beren organo nagusiek emandako jarraibideen arabera.

c) Beren ardurapeko arloetan egin beharreko egintzen planak edo egitasmoak proposatuko dizkiete organo nagusiei.

d) Indarrean dagoen legerian aurreikusten diren kauetan, errekursoak ebatziko dituzte.

Al frente de cada una de las Viceconsejerías habrá un Viceconsejero o Viceconsejera bajo la dependencia directa y jerárquica de la Consejera del Departamento. Corresponde a los/as Viceconsejeros/as del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

a) Dirigir, coordinar, impulsar y supervisar las actuaciones de la Viceconsejería, así como de las Direcciones y demás Órganos y Unidades Administrativas dependientes de la misma.

b) Elaborar y Proponer a la Consejera políticas de actuación.

c) Prestar asistencia a la Consejera en el ámbito de las funciones que tengan encomendadas.

d) Llevar a cabo la programación de las actividades de la Viceconsejería.

e) Dictar instrucciones, circulares y disposiciones para el funcionamiento de las Unidades Administrativas de la Viceconsejería.

f) Efectuar la propuesta de proyectos de disposiciones, de conformidad con la política de actuación establecida.

g) Supervisar la gestión de los planes de actuación y objetivos.

h) Ser el órgano de relación del Departamento, en las áreas de su competencia, con el resto de los Departamentos; así como con los órganos de coordinación interdepartamental constituidos en relación a dicho ámbito material.

i) La resolución de los recursos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

j) Cualesquier otras funciones que les atribuya el ordenamiento vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los Viceconsejeros del Gobierno y las que expresamente les delegue la Consejera.

Artículo 7.- De las Direcciones.

Al frente de cada una de las Direcciones del Departamento habrá un Director o Directora que, salvo lo previsto para la Dirección del Gabinete, dependerá directa y jerárquicamente del Viceconsejero o Viceconsejera correspondiente. Corresponde a los/as Directores/as del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

a) Organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección.

b) Impulsar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas de los órganos superiores.

c) Proponer a los órganos de los que dependan los planes o programas de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

d) La resolución de los recursos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

e) Esandakoez gain, indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkien gainontzeko egitekoak eta Jaurlaritzako zuzendariei oro har dagozkienak ere bete behar dituzte.

I. ATALA
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN
SAILBURUORDETZA

8. artikulua.— Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.

1.— Saileko sailburuordetzen zeregin orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkie Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari:

a) Saileko administrazio-unitateen barne-araubidea-rekikoak bideratuko ditu.

b) Saileko aurrekontuen aurreproiektuaren prestaketa koordinatuko du eta aurrekontuen azterketa eta ebaluaketa prozedurak artikulatuko ditu, erabakiak hartzea errazteko.

c) Ondare eta aurrekontu gaietan, gainontzeko sail, erakunde eta entitateekiko koordinazioa eramango du.

d) Ekonomi eragina duten xedapen eta egintza guztiei buruzko txostenak egingo ditu, nahitaez.

e) Saileko gastuak onartuko ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ildo horretatik, gastu expedienteen prestaketa eta koordinazioa egingo du; baita Jaurlariatzaren Kontseiluaren eta Ekonomia Gaietako Ordezk Batzordearen onespina behar duten gainerako ekonomiari buruzko espidenteena ere.

f) Administrazio Orokorean indarrean dagoen araubide organikoak Saileko kontratacio-organoari esleitzen dizkion eskumenez arduratuko da, eta Sailari dagozkion eskumenen eremuko kontratu guztiak egingo ditu, gutxieta gabe, ordea, Dekretu honetako 22. h) artikuluan eta Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia eta finantza-kudeaketa arautzen duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan ezarritakoa.

g) Euskal Hezkuntza Sistemaren ekonomi eta administrazio-kudeaketa zuzenduko du.

h) Hezkuntza Sistemaren baliabide materialen kudeaketa zuzenduko du, hala azpiegituren arloan nola ekipamenduarenean. Gainera, baliabide horiek sistemaren plangintzari egokitzen zaizkion egiaztatuko du eta egokitze hori koordinatu egingo du.

i) Hezkuntza Sistema informazio-gizartearen premia berrietara egokitzeko beharrezko sistema informatikoak planifikatu, diseinatu eta ezarriko ditu.

j) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen finantzaketen eta horiekiko itunen arloan Sailak eramango duen politika zuzendu eta ikuskatuko du, Hezkun-

e) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los/as Directores/as del Gobierno.

SECCIÓN I
DE LA VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

Artículo 8.— De la Viceconsejería de Administración y Servicios.

1.— Además de las funciones genéricas correspondientes a las Viceconsejerías del Departamento, la Viceconsejería de Administración y Servicios tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Disponer cuanto concierne al régimen interno de las Unidades Administrativas del Departamento.

b) La coordinación en la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos del Departamento y la articulación de procedimientos de evaluación y análisis presupuestario que ayuden a la toma de decisiones.

c) La coordinación con los demás Departamentos, Organismos y Entidades en las materias patrimoniales y presupuestarias.

d) Informar preceptivamente cuantas disposiciones y actos tengan repercusión económica.

e) Autorizar el gasto del Departamento conforme a lo dispuesto en la legislación vigente, así como la preparación y coordinación de los expedientes de gasto, y cualquier otro de carácter económico que requieran autorización del Consejo de Gobierno y de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

f) Ejercer las facultades que atribuya al órgano de contratación del Departamento el régimen orgánico vigente en la Administración General y la suscripción de todo tipo de contratos en el ámbito de las competencias del Departamento, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22.h) del presente Decreto y en el Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los Centros Docentes que conforman la Escuela Pública Vasca.

g) La dirección de la gestión económico-administrativa del Sistema Educativo.

h) La dirección de la gestión de los recursos materiales del Sistema Educativo, tanto en materia de infraestructuras como de equipamiento, verificando y coordinando la adecuación de los citados recursos a la planificación del Sistema.

i) La planificación, diseño e implantación de los sistemas informáticos necesarios para la adaptación del Sistema Educativo a las nuevas necesidades de la sociedad de la información.

j) La dirección y supervisión de la política del Departamento en materia de concertación y financiación de Centros Docentes Privados de enseñanza no univer-

tza Sistemako unibertsitatez kanpoko plangintzari - Hezkuntza Sailbuordetzak zehazturikoari- jarraiki. Gauza bera egingo du unibertsitatez kanpoko irakas-kuntzen arloko beka eta laguntzei buruzko politikaren alorrean.

k) Unibertsitatez kanpoko Euskal Hezkuntza Sistema Publikoaren giza baliabideen kudeaketa zuzenduko du, baita langileen kontratazioa ere.

2.- Administrazio eta Zerbitzuen Sailbuordetzen menpeko antolakuntza.

Administrazio eta Zerbitzuen Sailbuordetzaren menpe daude zuzendaritza hauek: Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza, Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritza, eta Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.

Zerbitzuen Administrazio Ikuskatzailletza Administrazio eta Zerbitzuen sailbuordearren menpe egongo da eta, halaber, giza baliabideen eta baliabide materiales dotazioa eta antolaketa egokiak direla ziurtatzeaz arduratuko da. Bere zereginan izango da, halaber, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako baliabide publikoak eraginkortasunez aplikatzen diren ikuskatzea.

9. artikulua.- Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza.

Saileko zuzendaritzen zeregin orokorrean gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkio Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzari:

a) Sailaren Erregistro Orokorra zuzenduko du.

b) Saileko diru-sarreren eta gastuen aurrekontuen aurregidasmoa egingo du; baita horien kudeaketa eta jarrapena ere.

c) Aurrekontuan sartzen diren egitasmoen jarraipena eta ebaluaketa egingo du, helburuak erdietsi diren eta lortutako eraginkortasuna norainokoa den egiazatzeko, beti ere, administrazioko beste organoek gai hotretan dituzten eskumenak errespetatuz.

d) Ekonomia Gaietako Ordezko Batzordera eramanago diren gaiak prestatuko ditu eta nahitaezko txostena egingo du, baita ekonomia-arlokoak izan eta Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkeztu beharrekoak ere.

e) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen eta Hezkuntza Sistemako gainerako unitateen kostuen azterketa egingo du, Sistemaren finantza-ereduak ezartzeko.

f) Saileko organo guztiei aholkuak emango dizkie antolaketari, finantzaketari eta aurrekontuen kudeamenduari dagozkion gaietan.

g) Eskoletako jantokiei eta eskola-garraioari eman beharreko laguntzak kudeatuko ditu eta jarduera horiek arautzeko neurriak hartuko ditu.

sitaria, de acuerdo con la planificación de la enseñanza no universitaria del Sistema Educativo definida por la Viceconsejería de Educación, así como de la política de becas y ayudas en el ámbito de las enseñanzas no universitarias.

k) La dirección de los recursos humanos del Sistema Educativo Público no universitario, así como la contratación del personal laboral.

2.- Organización dependiente de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

Dependen de la Viceconsejería de Administración y Servicios las Direcciones de Administración y Gestión Económica, de Gestión de Personal, de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización y la de Estudios y Régimen Jurídico.

Así mismo, dependiendo del Viceconsejero de Administración y Servicios, la Inspección Administrativa de Servicios velará por la adecuada dotación y organización de los recursos humanos y materiales, así como por la más eficaz aplicación de los recursos públicos en los diversos Centros Docentes de enseñanza no universitaria.

Artículo 9.- De la Dirección de Administración y Gestión Económica.

Además de las funciones genéricas correspondientes a las Direcciones del Departamento, la Dirección de Administración y Gestión Económica tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) La dirección del Registro General del Departamento.

b) La elaboración del anteproyecto de los presupuestos de ingresos y gastos del Departamento, así como la gestión y el seguimiento de sus ejecución.

c) El seguimiento y evaluación de los programas presupuestarios, que permita verificar el cumplimiento de los correspondientes objetivos y la eficacia y eficiencia alcanzada, sin perjuicio de las competencias que tengan atribuidas otros órganos de la administración en estas materias.

d) La preparación e informe preceptivo de los asuntos que vayan a ser sometidos a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos del Gobierno, así como de aquéllos que vayan a ser sometidos al Consejo de Gobierno que tengan contenido económico.

e) El estudio de los costes de los Centros Docentes de enseñanza no universitaria y de las demás unidades del Sistema Educativo, en aras al establecimiento de modelos de financiación del mismo.

f) El asesoramiento a todos los órganos del Departamento en materias de organización, financiación y gestión presupuestaria.

g) La gestión y las ayudas a los comedores escolares, así como al transporte escolar y la adopción de medidas tendentes a regular dichas actividades.

h) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen alorreko era guztietako beka eta laguntzak aztertu eta kudeatuko ditu.

i) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen finantzaketa eta horiekiko itunen arloko era guztietako espedienteak aztertu, proposatu eta kudeatuko ditu.

j) Unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxeetako irakasleen ordainketa eskuordetua kudeatuko du.

k) Ikastetxeen ekonomia eta administrazioa kudeatzeko eredua ezartzeko, ikusatzeko eta eguneratzeko txostenak eta proposamenak egingo ditu, ikastetxeen kudeamendu-autonomía aintzat hartuz, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa errespetatuz.

l) Hezkuntza Sistemak behar dituen obrak kontratatzeko espedienteak izapidezko ditu, bai obra, hornidura eta zerbitzuei dagozkienak, bai horiek proiektatu eta zuzentzeko beharrezko diren aholkularitza eta laguntza-lanei dagozkienak; beti ere, Dekretu honetako 22. h) artikuluan eta Euskal Eskola Publikoa osatzen duten Ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzea den uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan ezarritakoak errespetatuz.

10. artikulua.— Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaritza.

Saileko zuzendaritzen zeregin orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkie Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari:

a) Saileko kolektiboetako karreratako funtzionarioak edo lan-kontratuko langile finkoak kontratatzeko hauzespen-probetako oinarri-arauak, programak eta edukiak finkatuko ditu. Bere ardura izango da, baita ere, proba horiek kalifikatuko dituen epaimahaia izendatzea eta hautespen-prozesua antolatzea eta kudeatzea.

b) Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen leku-aldatze lehiaketetako oinarri-arauak finkatuko ditu, baremazio batzordeak izendatuko ditu eta lehiaketaren bilakaera kudeatuko du.

c) Unibertsitatez kanpoko ikerketako zein irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetako lanpostuak bete daitzen, merezimendu-lehiaketen oinarri-arauak eta kudeaketa egingo ditu.

d) Sailari atxikitako langileen nominak kudeatu eta kontrolatuko ditu, administrazioko beste organoen eskumen diren alderdiak izan ezik.

e) Saileko langile-gastuak aurreikusiko ditu.

f) Bertako negoziazio kolektiboa eta sindikatuekiko harremanak zuzenduko ditu.

h) El estudio y la gestión de todo tipo de becas y ayudas en el ámbito de las enseñanzas no universitarias.

i) El estudio, la propuesta y la gestión de todo tipo de expedientes en materia de concertación y acuerdos de financiación de Centros Docentes Privados de enseñanza no universitaria, sin perjuicio de su adecuación a la planificación del Sistema.

j) La gestión del pago delegado a los profesores de los Centros Concertados de enseñanza no universitaria.

k) Informar y proponer en orden al establecimiento, supervisión y actualización del modelo de gestión económico-administrativa de los Centros Docentes de enseñanza no universitaria, en cumplimiento del principio de autonomía de gestión de los mismos, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 58 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

l) La tramitación de los expedientes de contratación de obras, suministros y servicios, trabajos de consultoría y asistencia cuyo objeto, respecto a estos últimos, sea la redacción de proyectos de obra, dirección de las mismas, así como la contratación de estudios e informes necesarios para la ejecución de obras, que demande el Sistema Educativo, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22.h) del presente Decreto y en el Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los Centros Docentes Públicos que conforman la Escuela Pública Vasca.

Artículo 10.— De la Dirección de Gestión de Personal.

Además de las funciones genéricas correspondientes a las Direcciones del Departamento, la Dirección de Gestión de Personal tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) La elaboración de las bases, programas y contenido de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo de los colectivos propios, la designación de los tribunales calificadores de las mismas, y la organización y gestión del proceso selectivo.

b) La elaboración de las bases de los concursos de trasladados del personal funcionario docente de enseñanza no universitaria, el nombramiento de las comisiones baremadoras y la gestión de su desarrollo.

c) La elaboración de las bases y la gestión de los concursos de méritos para proveer las plazas de los servicios de investigación y apoyo a la docencia de enseñanza no universitaria.

d) La gestión y el control de la nómina del personal adscrito al Departamento, salvo las competencias que en esta materia tengan atribuidas otros órganos de la Administración.

e) La previsión de los gastos del personal propio.

f) La dirección de la negociación colectiva propia y las relaciones con los sindicatos.

g) Sailak kudeaturiko bulegoetako segurtasun-arau-dia betetzen den aztertu beharko du, baita horren segimendua eta kontrola eraman eta Segurtasun eta Eba-kuazio Planak egin eta proposatu ere.

h) Osasuna hobetzeko neurriak bultzatuko ditu. Horretarako, aurrezaintza lana sustatuko du saileko kolektiboetan maizengertatzen diren patologien eragina gutxitzeako eta, hala badagokio, errehabilitazio-lana egingo du.

i) Lanera ez agertzea kontrolatuko du eta dagozkion estatistika-azterlanak egingo ditu.

j) Saileko langileen erregistroa eramango du, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz.

k) Administrazio-egoeren deklarazioa egingo du eta unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioei jarduneitzultzeko baimena emango die, zeregin hori beste erakunde bati ez dagokionean.

l) Bateragarritasun-espedienteak ebatziko ditu eta nahitaezko erretiroen eta ezintasun fisikoagatiko erretiroen deklarazioa egingo du.

m) Zerbitzu eginkizunetan arituko diren langileak izendatuko ditu eta beste organoek ematen ez dituzten baimen eta lizenziak emango ditu.

n) Giza baliabideak ahalik eta egokien kudeatzeko irizpide eta jarraibideak emango ditu.

ñ) Unibertsitatez kanpoko irakasle ez direnen lanpostuen zerrendak proposatuko ditu.

o) Oro har, langileen buru izango da eta administrazio eta kudeaketa orokorraz arduratuko da.

11. artikulua.— Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzan.

Saileko zuzendaritzan zeregin orokorreza gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkie Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzari:

a) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak eta Sailaren gainontzeko bulegoak eraiki, handitu eta hobetzeari dagokionez, Hezkuntza Sistema egoki garatzeko behar diren azpiegitura dotazioak kudeatuko ditu. Obra-proiektuak ere ikuskatuko ditu, obra horiek kontrataztea Hezkuntza Sailari dagokionean. Baino, betiere, gai horretan Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen eskumenak errespetatuko ditu.

b) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak eta Sailaren gainontzeko bulegoak ekipatzeko dotazio orokor eta bereziak kudeatuko ditu, gai horretan Ogasun

g) El análisis, seguimiento y control del cumplimiento de la normativa de seguridad en las dependencias gestionadas por el Departamento, así como la elaboración y propuesta de Planes de Seguridad y de Evacuación.

h) La promoción de las medidas tendentes a mejorar la salud por medio de actividades de prevención, dirigidas a disminuir el impacto de las patologías más frecuentes en los diversos colectivos, ejecutando, en su caso, una labor rehabilitadora.

i) El control del absentismo laboral y la elaboración de los estudios estadísticos correspondientes.

j) El registro de personal del Departamento, de conformidad con lo previsto en el artículo 7 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

k) La declaración de las situaciones administrativas y la concesión del reingreso al servicio activo de los funcionarios docentes no universitarios, cuando no corresponda hacerlo a otra instancia.

l) La resolución de los expedientes de compatibilidad y la declaración de las jubilaciones forzosas y por incapacidad física.

m) La concesión de las comisiones de servicio, y de los permisos y las licencias que no concedan otros órganos.

n) La emisión de directrices e instrucciones oportunas para la más adecuada gestión de los recursos humanos.

ñ) La propuesta de las relaciones de los puestos de trabajo no docentes de enseñanza no universitaria.

o) En general, la jefatura de personal y los actos de administración y gestión ordinaria.

Artículo 11.— De la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización.

Además de las funciones genéricas correspondientes a las Direcciones del Departamento, la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) La gestión de las dotaciones en infraestructura para el adecuado desarrollo del Sistema Educativo, en lo referente a la construcción, ampliación y mejora de los inmuebles, tanto de los Centros Docentes Públicos de enseñanza no universitaria y de las demás dependencias del Departamento, así como la supervisión de los proyectos de obras cuya contratación corresponde a éste, sin perjuicio de las funciones que correspondan al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

b) La gestión de las dotaciones para el equipamiento, tanto de carácter general como específico, de los Centros Docentes Públicos de enseñanza no universitaria.

eta Herri Administrazio Sailak dituen eskumenak errespetatuz.

c) Sailari dagozkion sistema eta baliabide informatikoak planifikatu, diseinatu eta ezarriko ditu, hezkuntza-sistema informazio-gizartearen premietara behar bezala egokitu ahal izateko.

d) Sailaren barne-kudeaketarako behar diren baliabide informatikoak ipiniko ditu zerbitzuan, Internet eta Intranet zerbitzuak barne.

e) Estatistikaren arloan sailari dagozkion egitekoak burutuko ditu.

f) Saileko administrazio-unitateen funtzionamendua eta egitura arrazionalizatzeko eta kudeaketa-prozedurak diseinatzeko eta eguneratzeko txostenak eta proposamenak egingo ditu.

g) Administrazioaren Erreforma eta Modernizazioaren eskumena duen organoak agindutako ekimenak eta ildoak garatu eta egikarituko ditu, Gobernu Programak alor horretan aurreikusitakoa garatzeko, Sailaren jardun-esparruan.

12. artikulua.— Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzza.

Saileko zuzendaritzten zeregin orokorrezz gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkio Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari:

a) Sailerako interesarriak diren azterketa juridikoak eta lege-azterketak zuzendu eta egingo ditu.

b) Sailaren jarduera guztiei buruzko aholkularitza juridikoa emango du, oro har.

c) Saileko organoek emandako ebaZen guztien aurkako administrazio-errekursoei buruzko ebaZen-proposamenak izapidetu, berri eman eta aurkeztuko ditu.

d) Gobernu-kontseiluari edo ekonomia-gaietarako eskuordeko batzordeari aurkeztu behar zaizkion gaiak izapidetuko ditu, eta bai Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste aldizkari ofizial batzuetan argitaratu behar diren gaiak ere.

e) Lege-aurregitasmoak eta xedapen orokorrak lanteko eta izapidetze zuzendaritza, bultzada eta koordinazioa egingo ditu, Sailari dagozkion gaietan, eta bai Sailari atxikitako edo Sailaren menpeko edozein entitateri dagozkion gaietan ere.

f) Administrazioko izapidetzeak eskatzen dituen zuenbidezko txostenak emango ditu, eta Saileko organoek eta, hala denean, Sailari atxikitako edo menpeko erakundeek gauzatzen dituzten egintzen prozedura ego-kitzen eta oinarritze juridikoa egiten, eta irizpenak ematen lagunduko du, aholkularitza juridikoaren bitartez.

ria y demás dependencias del Departamento, sin perjuicio de las funciones que correspondan al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

c) El ejercicio de las funciones de planificación, diseño e implantación que en materia de Sistemas y Recursos Informáticos correspondan al Departamento para la adecuada adaptación del Sistema Educativo a las exigencias de la Sociedad de la Información.

d) La puesta en servicio de los recursos informáticos necesarios en la gestión interna del Departamento, incluyendo los servicios de Internet e Intranet.

e) El ejercicio de las funciones que correspondan al Departamento en materia estadística.

f) Informar y proponer en orden a la racionalización de la estructura y funcionamiento de las Unidades Administrativas del Departamento, así como el diseño y la actualización de los procedimientos de gestión.

g) El desarrollo y ejecución de las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de Reforma y Modernización de la Administración en orden a desarrollar las previsiones del programa de Gobierno relativos a la citada materia en el ámbito de actuación del Departamento.

Artículo 12.— De la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico

Además de las funciones genéricas correspondientes a las Direcciones del Departamento, la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) La dirección y realización de estudios de carácter jurídico y legal de interés para el Departamento.

b) Con carácter general el asesoramiento jurídico relativo al conjunto de las actividades del Departamento.

c) El trámite, informe y elevación de propuestas de Resolución en relación con los recursos administrativos que se formulen contra la totalidad de las resoluciones emitidas por los órganos del Departamento.

d) La tramitación de los asuntos que deban ser sometidos al Consejo de gobierno o comisión delegada para asuntos económicos, así como los que deban ser objeto de publicación en el boletín Oficial del País Vasco u otros Boletines Oficiales.

e) La dirección, el impulso y la coordinación en la elaboración y tramitación de los Anteproyectos de Ley y disposiciones de carácter General en las materias que afecten al Departamento o a cualquier entidad adscrita o dependiente del mismo.

f) La emisión de los informes en Derecho que requiera la tramitación administrativa y el apoyo, a través del asesoramiento jurídico, a la emisión de dictámenes, la adecuación procedural y la fundamentación jurídica de los actos que dicten los órganos del Departamento y, en su caso, las entidades adscritas o dependientes del mismo.

g) Sailak izenpetu behar dituen erabakien edo hitzarmenen txosten juridikoak emango ditu, bai eta aginduzko legezkotasun-txostenak ere, beste organo batzuei atxikita daudenak izan ezik.

h) Gai juridiko bereziei buruzko irizpenak eta txostenak landuko ditu, ikastetxeek eskatzen baldin badituze, unibertsitateek izan ezik, eta hezkuntza-arloan eragina baldin badute.

i) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak parte hartzen duen jurisdikzio-prozeduren eta beren ebazpenen jarraipena eta kontrola egingo ditu, eta Auzibide Zuzendaritzarekiko harremana bideratuko du.

j) Sailaren jarduera dela eta, ondare-erantzukizunari buruz sortzen diren prozedurei hasiera eman eta azken ebazpenera arteko jarraibideak egin beharko ditu.

k) Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren eraginpeko jabetza publikoko ondasunei buruzko expedienteak ebatzikor ditu, eta bai horien inguruko gorabehera guztiak ere.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak Sailari ematen dizkion egitekoak burutuko ditu.

m) Arartekoek Hezkuntza Sailari planteatutako gaiei buruzko txosten juridikoa egingo du, hezkuntza-jarduerarekin zerikusia duten kasuetan.

n) Oro har, Sailari eragiten dioten gaien bultzada, aholkularitza eta kordinazio juridikoaz arduratuko da.

II. ATALA HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

13. artikulua.— Hezkuntza Sailburuordetza.

1.— Saileko sailburuoedetzen zeregin orokorreza gain, honako egiteko eta jardun-arloak dagozkie Hezkuntza Sailburuordetzari:

a) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen arloko hezkuntza-politika zehatztuko du, baita horrek garapen curricularrean duen eragina, irakasleen prestakuntzan, hezkuntza-beharrizan berezietan eta hezkuntza berritzatzeko programen garapenean.

b) Unibertsitatez kanpoko Ikastetxeetan ezartzeko programa zehatztuko du.

c) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen ebaluaketa egingo du, irakaskuntzaren kalitate-prozesuak sartzera eta hobetzera bideratutako neurriak hartu ahal izateko eta kontrola eramateko.

d) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak antolatzeko, berritzeko eta ikertzeko egintzak zuzenduko ditu.

g) La emisión de informe jurídico de los acuerdos o convenios a suscribir por el Departamento; así como aquellos informes de legalidad de carácter preceptivo a excepción de los que estén atribuidos a otros órganos.

h) La elaboración de dictámenes e informes sobre cuestiones jurídicas específicas solicitados por centros docentes públicos, salvo los universitarios, y que tengan incidencia en materia educativa.

i) El seguimiento y el control de los procedimientos jurisdiccionales y la relación con la Dirección de lo Contencioso en los asuntos en los que intervenga el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, así como el de las resoluciones recaídas en ellos.

j) La incoación e instrucción, hasta su resolución final, de los procedimientos de Responsabilidad Patrimonial que se susciten en relación con la actividad del Departamento.

k) La Resolución de los expedientes relativos a bienes de dominio público afectos al servicio público educativo, así como las incidencias que se susciten en relación con los mismos.

l) El ejercicio de las funciones que la Ley de Fundaciones del País Vasco otorga al Departamento.

m) El informe jurídico de los asuntos planteados por el Ararteko y el Defensor del Pueblo al Departamento de Educación en supuestos relacionados con la actividad educativa.

n) Y en general el impulso, el asesoramiento, y la coordinación jurídica en las materias que afecten al Departamento.

SECCIÓN II DE LA VICECONSEJERÍA DE EDUCACIÓN

Artículo 13.— De la Viceconsejería de Educación.

1.— Además de las funciones genéricas correspondientes a las Viceconsejerías del Departamento, la Viceconsejería de Educación tiene atribuidas las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) La definición de la política educativa en el ámbito de las enseñanzas no universitarias y su incidencia en el desarrollo curricular, la formación del profesorado, las necesidades educativas especiales y en el desarrollo de los programas de innovación educativa.

b) La programación e implementación de la misma en los Centros Docentes de enseñanza no universitaria.

c) La evaluación de las enseñanzas no universitarias, en orden al control y a la adopción de medidas tendentes a introducir y mejorar procesos de calidad en la enseñanza.

d) La dirección de las actuaciones relativas a la ordenación, innovación e investigación de las enseñanzas no universitarias.

e) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarako behar diren giza baliabide eta baliabide materialak aztertu eta planifikatuko ditu.

f) Unibertsitatez kanpoko testu-liburuei eta bestelako hezkuntza-material osagarriei onesprena emango die.

g) Unibertsitatez kanpoko Hezkuntza Sistemaren planifikazioa egingo du. Besteak beste, ikastetxeen tipología eta kokapena zehazteko irizpideak finkatuko ditu, langile-premiei erantzuteko proposamenak eta giza baliabideak hobetzeko eta kualifikatzeko agertzen diren asmoak aztertuko ditu, baita azpiegitura eta ekipamendu baliabideen dotazio berriei buruzko proposamenak ere.

